

Z HASIERAKOA ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. Familia-liburua edo familia-unitateko seme-alaben hitzez hitzeko jaiotza-ziurtagiria
Tutoretza, adopzioa, adopzio-helbururako zaintza edo harrera iraunkorra: dokumentu judiziala ala administratiboa, edo erregistro-inskripzioko ziurtagiria.
2. Langilearen Gizarte Segurantzako alta-agiria: Seme-alabak zaintzeko kontratatutako etxeko langilea Gizarte Segurantzari alta eman zaiola adierazten duen egiaztagiria.
3. Bankuko ordainagiriak: Seme-alabak zaintzeko kontratatutako etxeko langilearen kotizazioa Gizarte Segurantzari ordaindu izanaren bankuko egiaztagiria, dirulaguntza eskatzen den hilabeteei dagozkienak.
4. Familia-unitatea osatzen duten gurasoak Gizarte Segurantzari alta emanda daudela eta diruz lagundu daitekeen jarduketak irauten duen bitartean lan egiten duten sektorean zer lanaldi egiten duen egiaztatzen duen agiria:
 - IDC Kotizaziorako Datuen Txostena: **Besteren konturako langileak eta Araubide Orokorrean alta emandako bazkide kooperatibisten kasuan.**
 - Autonomoen kotizazio-ordainagiriak: **Norberaren konturako langileen kasuan (autonomoak).**
 - Enpresa-ziurtagiria: **Autonomoetan alta emandako bazkide kooperatibisten kasuan.**
5. Hirugarrenaren altaren fitxa eskatzailearen banku-datuekin bete beharrekoa.

GAINERA, EGOERA HAUETAKOREN BAT AGERTZEN BADA:

6. Eskatzailearen ezkontza-deuseztasuna, banantzea edo dibortzioa: Etxeko langilea kontratatzeko arrazoia den seme edo alabaren zaintza eta babesa esleitzen dituen ebazpen judizialaren fotokopia (ez dira onartuko guraso eta seme-alaben arteko neurriak arautzen dituzten hitzarmenak, baldin eta dagokien berrespen-epairik ez badute).
7. Desgaitasun, mendekotasun edo ezintasun absolutu edo osoa: Familia-unitatea osatzen duten pertsonetako batek honako egoeraren bat badu aitortuta, egoera hori egiaztatzen duen ziurtagiria.
8. Genero-indarkeriaren biktima: Genero-indarkeriaren egoera egiaztatzeko, Familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzko uztailaren 24ko 154/2012 Dekretuaren 4.3 artikuluan (Familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzko Dekretua aldatzen duen martxoaren 17ko 32/2015 Dekretuaren bidez aldatutako artikulua) edo hura ordeztzen duen arauan ezarritako bitartekoren bat aurkeztu behar da.
9. Guraso bakarreko familia-unitatea: Eskatzailearen ezkontza-deuseztasunagatik, banantzeagatik edo dibortzioagatik sortutako guraso bakarreko familia-unitateen kasuan, seme-alaben zaintza eta babesa eskatzaileari ematen dion eta mantenu-pentsioaren ordainketa eza adierazten duen ebazpen judiziala.

ELKARRERAGINGARRITASUNETARAKO BAIMENA EMAN BADUZU

EZ DITUZU HONAKO AGIRI HAUEK AURKEZTU BEHAR:

10. NANaren edo AITren fotokopia: Eskatzailearen eta egungo ezkontidearen edo bikotekidearen nortasuna egiaztatzeko.
11. Erroldatze-ziurtagiria: Eskatzailearen errolda-ziurtagiri eguneratua, etxebizitzan bizi diren pertsona guztien zerrenda eta udalerrian erroldatu zen data jasotzen dituen. Ez da onartuko laguntza-eskabidea aurkeztu den eguna baino hilabete lehenagoko errolda-ziurtagirik. Aurreko baldintza betetzen ez badu, egiaztatu beharko du eskaeraren aurreko 10 urteetan 5 urtez jarraian Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udaletan erroldatuta egon dela.
12. Eskabidea egin baino bi urte lehenagoko diru-sarreraren fiskalei buruzko datuak: Zergaldiari dagokion errenta-aitorpenaren fotokopia, edo, bestela, PFEZean kontuan hartutako diru-sarreraren ziurtagiria, eskumena duen administrazioak egin. Dokumentazio hori egoera hauetakoren batean egonez gero aurkeztu beharko da:
 - Eskabidea aurkeztu aurreko bi urteei dagokien zergaldian PFEZaren aitortpena EAEtik kanpo egin bada edo EAEtik kanpo egin behar bazen.
 - Azken hiru urteetan eskatzailearen nortasun-agirian aldaketaren bat izan bada (AIZA izatetik NANA izatera pasatu, izenaren grafia aldatu, abizenen hurrenkera aldatu bada, eta abar).
 - Identifikatzeko pasaporte erabili bada.
13. Familia ugariaren kasuan, familia ugariaren titulua.